# Xedapen Orokorrak

**OGASUN ETA**
**HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**
**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE**
**ETA IKERKETA SAILA**

**826**

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 19koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kontratazio Mahaia aldatzen da.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1996ko uztailaren 12ko Aginduaren bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kontratazio Mahaia sortu zen, eta 2007ko urtarrilaren 10eko aginduaren bitartez aldatu.

Obra, horniketa eta zerbitzuak kontratatzeko espedienteak izapidetzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzari dagokionez, zuzendaritza horri atxiki behar zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kontratazio Mahaia.

Bestetik, saileko zerbitzuen egitura dela eta, Kontratazio Mahaiko kideen osaera aldatzea komeni da.

Hori guztia dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, hau

XEDATU DUGU:

***Artikulu bakarra.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko kontratazio-mahaia sortzeko 2006ko uztailaren 12ko Aginduaren artikulu bakarraren 1. eta 2. idatz-zatiak aldatzea.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1996ko uztailaren 12ko Aginduaren artikulu bakarraren 1. eta 2. idatz-zatiei idazkera berria ematen zaie (Agindu horren bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko kontratazio-mahaia sortu zen). Beraz, honela geratzen da idatz-zati horien testua:

«1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko kontratazio-mahaia sortzen da Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzari atxikita, ekainaren 5eko

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA**
**Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**
**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,**
**UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**826**

ORDEN de 19 de enero de 2009, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de modificación de la Mesa de Contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

La Orden de 12 de julio de 1996, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Educación, Universidades e Investigación, creó la Mesa de Contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, que fue modificada por la Orden de 10 de enero de 2007.

Dado que la función de tramitar expedientes de contratación de obras, suministros y servicios corresponde a la Dirección de Administración y Gestión Económica de la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, surge la necesidad de adscribir a esta Dirección la Mesa de Contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

En segundo lugar, razones de estructuración interna de los servicios departamentales, aconsejan la modificación de la composición de las y los miembros de la Mesa de Contratación.

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 4 y en la disposición Adicional Novena del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre Régimen de la Contratación en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi,

DISPONEMOS:

***Artículo único***.– Modificación de los apartados 1 y 2 del artículo único de la Orden de 12 de julio de 1996 de creación de la mesa de contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Se da nueva redacción a los apartados 1 y 2 del artículo único de la Orden de 12 de julio de 1996 de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Educación, Universidades e Investigación, de creación de la mesa de contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, cuyo texto queda sustituido por el siguiente:

«1.– Adscrita a la Dirección de Administración y Gestión Económica se crea la mesa de contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investi-

136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan jasotako eginkizunak betetzeko artikulu horietan aurreikusitako jardute-eremuan.

2.– Honako kide hauek osatuko dute mahai hori:

a) Presidentea: Administrazio eta Dirubideen zuzendaria. Kargua hutsik, zuzendaria kanpoan edo gaixorik, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuko arduradunak ordezkatuko du.

b) Bokal bat, kontratazio organoaren ordezkaria, organo horrek izendatuko duena.

c) Hiru bokal: bat Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria, beste bat Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkaria, eta beste bat Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritzaren ordezkaria; azken hori ondasun eta zerbitzu informatiko eta telematikoen espedienteetan bakarrik. Bakoitza bere titularrak izendatuko du.

d) Bokal-idazkaria: Zuzenbidean lizentziaduna den teknikaria, Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzari atxikia, aholkulari juridiko eta Mahaiko idazkari arituko dena. Hitz egiteko eskubidea eta botoa ditu.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen da Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2007ko urtarrilaren 10eko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko kontratazio-mahaia aldatzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 19a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

gación para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5 del Decreto 136/1996, de 5 de junio.

2.– La referida mesa estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidenta: la Directora de Administración y Gestión Económica. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será sustituida por la persona responsable del servicio de contratación de la Dirección de Administración y Gestión Económica.

b) Vocal en representación del órgano de contratación designado por éste.

c) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación, y otro, de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos y telemáticos, designados por sus respectivos titulares.

d) Vocal-Secretario o Vocal-Secretaria: un o una técnica con título de Licenciada en Derecho, adscrita al servicio de contratación de la Dirección de Administración y Gestión Económica que ejercerá las funciones de Asesor o Asesora Jurídico y Secretario o Secretaria de la Mesa con voz y voto».

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 10 de enero de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de modificación de la mesa de contratación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de enero de 2009.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.